

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

20. astea (2025eko maiatzaren 12tik 18ra)

Gripe-birusaren zirkulazioa epidemia arteko balioetan mantentzen da eta ABSrenak beheranzko joerarekin jarraitzen du. COVID-19 kasu kopuruak gora egin du aste honetan.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 248,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (218,5/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak epidemia arteko balioetan mantentzen dira eta bronkiolitisaren tasak behera egiten du. COVID-19aren tasa, azken asteetan goranzko joera txikia zuena, modu argiagoan egin du gora.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 28 lagin jagoleen % 64,3 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik, baina ez gripe-birus ala ABSik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 8,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (9,7/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 68 SARS-CoV-2, 9 gripe-birus eta 2 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 248,5 kasukoa izan da (218,5/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 181,5/100.000 izan da Araban, 263,0/100.000 Bizkaian eta 256,4/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2216,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1243,9 eta 385,4 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 91,0 kasukoa izan da (77,6/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 20. astea	Tasa 19. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	199,5	186,6	1,07 (0,95-1,20)
Arabar Errioxako ESI	272,1	297,6	0,91 (0,57-1,48)
Barakaldo-Sestaoko ESI	239,4	217,2	1,10 (0,94-1,30)
Barrualde-Galdakaoko ESI	277,5	243,1	1,14 (1,03-1,26)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	286,3	258,2	1,11 (1,01-1,21)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	277,2	216,3	1,28 (1,11-1,47)
Uribeko ESI	189,9	174,8	1,09 (0,95-1,25)
Bidasoako ESI	204,6	176,1	1,16 (0,92-1,46)
Debarrenako ESI	236,1	213,8	1,10 (0,89-1,37)
Debagoienako ESI	187,0	202,6	0,92 (0,72-1,18)
Donostialdeako ESI	240,7	203,4	1,18 (1,07-1,30)
Goierri-Urola Garaia ESI	356,7	273,5	1,30 (1,11-1,53)
Tolosaldeako ESI	272,4	246,1	1,11 (0,89-1,37)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 1,0 kasu 100.000 biztanleko balioan mantentzen da (1,2/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 100.000 biztanleko 114,0 kasutan kokatu da (128,3/100.000 aurreko astean). COVID-19arenak gora egin du eta 100.000 biztanleko 4,7koa izan da (2,4/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE**



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoletako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 28 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 64,3 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat atzeman da, baina ez gripe-birus ala ABSik. 9 errinobirus, 3 metapneumobirus eta 3 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 0,0koa izan da aste honetan (aurreko astean bezala). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 3,6an kokatu da (% 6,3 aurreko astean) eta ABSrena % 0,0an mantentzen da (aurreko astean bezala). Errinobirusaren positibotasuna % 32,1koa izan da (% 6,3 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE


	20. astea		19. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	521	29,6
SARS-CoV-2	1	3,6	1	6,3	41	2,3
ABS	0	0,0	0	0,0	70	4,0
Metaneumobirus	3	10,7	4	25,0	64	3,6
Parainfluenza	2	7,1	3	18,8	71	4,0
Adenobirus	1	3,6	0	0,0	73	4,1
Errinobirus	9	32,1	1	6,3	300	17,0
Urtaroko CoV	3	10,7	0	0,0	93	5,3
Enterobirus	1	3,6	0	0,0	43	2,4

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erarortzen direnak. AIAL tasa 8,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (9,7/100.000 aurreko astean), 11,0/100.000 gizonetan eta 6,8/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 44,3 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 26,9 eta 4,8 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,2koa izan da 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,5 kasukoa 100.000 biztanleko (0,4/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du aste honetan eta % 1,6an kokatu da (% 4,5 aurreko astean). ABSrena baxu mantentzen da % 1,7an eta SARS-CoV-2aren positibotasunak azken asteetako goranzko joerari eutsi eta % 7,1ean kokatu da (% 6,4 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	20. astea		19. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	140	7,1	140	6,4	8456	2,4
Influenza	123	1,6	110	4,5	7596	23,0
ABS	118	1,7	123	0,0	7093	10,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 68 SARS-CoV-2, 9 gripe-birus eta 2 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 9 gripe-birusetatik, 6 A motakoak izan dira, 2 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2024/40 astetik 9232 detekzio erregistratu dira, 7226 (% 78,3) A motakoak eta 2006 (% 21,7) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3652 birusetatik, 2478 (% 67,9) A(H3) eta 1174 (% 32,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko maiatzak 21

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza